



PRENTSA-OHARRA

Iruñeko Udalak % 43 handitu ditu sormen artistikorako diru-laguntzak, eta lehiaketako hiru sari erreserbatuta egongo dira 35 urtetik beherakoendako

Programaren bigarren edizio honetan hamar proiektu hautatuko dira, eta bakoitzari 3.000 euro emango zaizkio proiektua sortu eta garatzeko

2017an deialdia kaleratu ostean, Iruñeko Udalak sormen artistikorako diru-laguntzak finkatu nahi ditu, eta hartara, deialdi berriak baliabide ekonomiko gehiago izango ditu, sari gehiago, eta arreta berezia jarriko du gazteenengan. Sormen artistikorako proiektuen lehiaketa berriak, 2018koak, % 43 handitu ditu diru-laguntzen zenbatekoak, 30.000 euro bitarte, eta horrekin 10 proiektu babestu ahalko dira guztira, horietako bakoitzak 3.000 euro jasoko baititu proiektua sortu eta garatze aldera. Hamar proiektu horietako hiru 35 urtetik beherakoendako erreserbatuko dira. Halaber, sarietako bat euskarazko lan garaikide bat sortzeko izango da, hori txertatu ahal izateko *Garaikide* udal-programan.

Horiek dira deialdiaren berritasun nagusiak, zeinen berri gaur goizean eman baitute, prentsaurrekoan, Hezkuntza eta Kultura zinegotzi ordezkari Maider Belokik eta Alorreko zuzendari Maitena Muruzabalek. Udalak 2017an abiatu zuen lehenengo aldiz deialdi hori, xede hartuta hirian sormena sustatzea eta sormen artistikoen prozesuak laguntzeko diru-laguntzetan zegoen hutsunea betetzea, sormen artistiko jardun gisa ulertuta diziplina hauek guztiak: arte eszeniko eta plastikoak, musika, literatura, ikus-entzunezkoak eta kulturako beste adierazpen artistiko batzuk. Lehenengo edizioan hainbat diziplinetako 45 proiektu aurkeztu ziren guztira, eta 3.000 euroko zazpi sari banatu zitzaizkien baloraziorik altuenak lortu zituztenei.

Deialdi berria Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta hilabeteko epea egongo da lanak aurkezteko.

Proiektu pertsonalak eta originalak, 2018an eginak

Lehiaketan parte hartu ahalko dute Iruñean erroldatutako pertsona fisikoek, baldin eta proiektua noiz aurkeztu eta gutxienez urtebete lehenagotik –etenik gabe– bertan erroldatuta egon badira. Pertsona fisikoak banakako proiektu batekin aurkezten ahalko dira, edo talde-proiektu baten partaide gisa. Agiriekin batera aurkeztu beharko dira sormen-proiektua, artistaren ibilbide profesionala, eta edizioari, ekoizpenari edo jendaurrean agertzeari buruzko aurreikuspena.





Parte-hartzaile bakoitzak proiektu bakarra aurkezten ahalko du edo proiektu bakarrean parte-hartu. Proiektuek originalak izan behar dute, eta 2018. urtea amaitu aurretik burutu beharko dira. Ez dira onartuko Udaleko beste deialdi batzuetan diruz lagundutako proiektuak.

Oinarrietan zenbait ideia edo proiektu mota zehazten dira, diziplina artistikoaren arabera. Arte eszenikoetan hainbat proiekturen sormena aurkez daiteke, hala nola testu dramatiko bat, koreografia bat, performanceak edo ezohiko tokietan esku-hartzeak; arte plastikoen alorrean, marrazkiak, pinturak, grabatuak, eskulturak, instalazioak, argazkiak, argazki-saiakerak, horma-irudiak, arte hiritarra eta performanceak. Musika-proiektuen barruan sar daiteke edozein generotako lanak sortu eta konposatzea; literatur sormenari dagokionez, edozein generotako obrak sortzea (ipuinak, poesia, eleberriak, haurrendako literatura edo saiakerak); eta ikus-entzunezkoen artean egon daiteke gidoi eta sormen proiektu bat sortzea, obrak, dokumentalak, fikzioa zein animazioa egite aldera.

Kultura eta Hezkuntzako Alorreko teknikariek osatuko dute epaimahaia, eta aurkeztutako proiektuak baloratuko dituzte, hiru irizpide orokor aintzat hartuta: proiektuaren interes artistikoa eta kulturala (gehienez ere 9 puntura bitarte); sortzailearen ibilbidea, kontuan izanda azken urteetan egindako sormen-lanak (4 puntura bitarte); eta proiektuak lurraldean izango duen eragina (2 puntura bitarte). Berdinketarik badago, 35 urtetik beherako proiektuak lehenetsiko dira. Ezin izango dute saririk jaso 1. irizpideko atalaren balorazioan –interes artistikoa eta kulturala– 5 puntu baino gutxiago jasotzen dituzten proiektuek. Ezingo dira saritu, ezta ere, lehiaketaren aurreko edizioako irabazleak.

Proiektu hautatuek laguntza eta aholkularitza jaso ahalko dute Kultura eta Hezkuntzako Alorreko teknikarien partetik proposamena garatzeko. Aurreikusitakoaren arabera, proiektuen jarraipena egiteko bilera bat egingo da irailean, Alorreko teknikariek. Halaber, nahi izanez gero, proiektuek erabili ahalko dituzte Huarte Arte Garaikideko Zentroko guneak eta baliabide teknikoak, zentroaren egoitza edo egonaldi artistikoen barruan baliabide horiek erabiltzeko aukera ematen den baldintza berberetan.

Lehen zazpi proiektuak

Sormen artistikoa sustatzeko Udalak egin zuen lehenengo deialdian 45 proiektu aurkeztu ziren guztira, hainbat diziplinakoak: 10 ikus-entzunezko proiektu, arte eszenikoetako 10, literatur esparruko 4, musikako 8 eta arte plastikoetako 13. Zazpi proiektu hauek saritu ziren: Ana Maestrojuáñen *Martinaren parke fantastikoa*, hurrei zuzendutako antzerki-testu garaikidea; Carmen Larrazen *Transoceánica*, diziplina anitzeko ikerketa bat dantza, argazkigintza eta musikaren inguruan; César Orozen *El reyno de las letras. Navarreando por la literatura universal* komikia; David Bernuésen *Pez Volador* film laburraren gidoia; José Javier Castiellaren *Apuntes para después del colapso*, pintura eta eskultura uztartzen dituen instalazioa; José Vicent Egearen *Alegoría de la fama* musika-konposizioa; eta Margarita Gutiérrezen *Cuerdas/Sokak* dokumental laburra.



Sormena bultzatzeko ekimen gehiago

Sormen artistikoko proiektuendako lehiaketaren deialdi berri honez gain, Kulturako Alorra beste ekimen batzuk lantzen ari da sormena bultzatzeko hainbat esparrutan. Hori horrela, kale-arteari dagokienez, Iruñeko Udala, Bilbo, Gasteiz, Hendaia, Hameka eta Libourne (Frantzia) udalerriekin batera, *Karrikan* plataformaren kide da. Plataforma horrek bultzada eman nahi die kolektiboek, artistek, konpainia profesional hasiberriek zein profesional bihurtzeko bidean direnek espazio publikoan egiten dituzten jardun artistikoei. “Zuzeneko ikuskizunak” egiten dituzten diziplina guztiei ematen zaie laguntza: antzerkia, dantza, zirkua, askotariko diziplinak uztartzen dituztenak, etab. 2017an, plataformak bigarren deialdia egin zuen, eta bi proiektu hautatu ziren diru-laguntza jaso eta proiektua garatzeko, eta horren ostean plataforma osatzen duten hirietako programazioetan txertatu dira ikuskizun horiek. Iruñearen kasuan, kale-artea da *Harresietako jaialdiaren* ardatz, hain zuzen ere.

Bideoarte da beste lan-ildoetako bat. Une honetan, Udala hitzarmen bat ari da prestatzen Huarte Arte Garaikideko Zentroarekin; hitzarmen horren xedea izango da bideoarte-sorkuntzarako egonaldiak lagundu eta sustatzea, horiek Bestelako argiak udal-programaren barruan erakusteko, abenduan, hiriko erdiguneko hainbat hormatan.

Era berean, arte plastikoei eta ikusizko arteei dagokienez, Kulturako Alorra harremanetan dago Frantziako Hezkuntza Ministerioaren menpe baina Madrilen dagoen Casa de Velázquez erakundearekin, bertan prestatzeko tokiko artisten egonaldi-programa bat.

Iruñean, 2018ko maiatzaren 31n

